

Beste batzuekin batera gara

15. saioa

Burujabe versus mendeko? Hartu-emanen, konektatuta, elkarrekiko eta Jainkoarekiko mendekotasunean gauden izakiak gara. Ezinezkoa da bakarrik norbanakoa izatea. Gizakia, berez, hartu-emanen den izakia da; ezin du 'ni' esan aldi berean 'gu' durundi egin gabe. Beste batzuekin batera gara.

Gizakiak bizikide izateko, gizartean edo elkartean bizitzeko deia jaso du. Bestearekin bat egiten dugunean..., orduan aitortzen eta onartzen dugu geure burua. Desberdina den bestearekiko bategite horrek ahalbideratzen du hartu-emaia; elkartze horretan antzematen da sakontasun handiagoz giza izatearen harreman-alderdia. Hartu-emanen, konektatuta, elkarrekiko eta Jainkoarekiko mendekotasunean gauden izakiak gara, Jainkoaren antz eta irudiko baikara. Jainkoaren kristau irudia, harreman-irudia da. Gure Jainkoa ez da Jainko bakartia, Aita, Semea eta Espiritua den Jainkoa baizik. Hauxe da gure fedearen ezaugarrietako bat: elkartean, beste batzuekin batera gara Jesusen jarraitzaile. Jainkoak dei egin digu, Jesusen jarraitzaile izatea elkartean bizi dezagun, eta elkarte esperientzia Jainkoarekin bat egitearen "esperientzia izateko" era pribilegiatua da.

Gizakiok ez gara bakarrik bizi, ez dugu bakarrik arnasa hartzen, lo egiten, jaten... Bizikide gara. Besteekin bat egitean, besteekiko aldeak antzeman eta aitortzean... orduan ikusten dugu hobeto gizon eta emakumeon funtsezko alderdia hartu-emaia dena.

Harreman-alderdi hau ez da, arrazoi psikologikoak, antolaketa-arrazoiak edo espeziearen etorkizuna ziurtatzeko arrazoiak medio, komeni zaigun zerbait. Berezkoa dugu, hau da, gizakia besteentzako izakia da, besteekin da izaki; horregatik diogu elkarte alderdia gizakiaren berezko osagaia dela.

Guraso bezala, harreman-alderdi honetan hezi behar ditugu gure seme-alabak. Zer erabaki ez dakigula gaude: mendetasuna, burujabetza, nork bere burua aski izatea... Guk geuk lortu ez duguna izan edo egin dezatela...

"Gure seme-alabaren garapenak erakusten digu guregandik gero eta burujabeagoa dela arlo askotan. Bizitzako lehenengo hilabeteetan gure zainketa eta arreta guztiak behar bazituen ere, aurrera egin du garapen fisiko eta mentalean, gero eta autonomoago egiten duten trebetasun eta jakintzak menperatuz.

Oraindik txikiak dira eta urte batzuez txiki izaten jarraituko dute, baina dagoeneko agertzen dira gero izango dena pentsarazten edo ikustarazten diguten bere izaera eta nortasunaren ezaugarri batzuk (...)

Gure helburua ez da izango seme-alabek bihar-etzi gure gaurko ametsak egia bihurtzea. Beraiek, beren berezko ezaugarriekin, beren ilusio eta aukerekin umatuko dituzte beren aukerak hazkunde pertsonaleko ondoz ondoko etapetan.

Guk, aita eta ama garenez, gure seme-alabei lagun egin behar diegu, hezi eta bideratu egin behar ditugu ahalik eta ondoen, beren askatasunaren garapenean. Dena dela, helburuak

jartzen eta horiek lortzeko bide egokiak eskaintzen jarraitu behar dugu, baina, beti ere, bere ezaugarria eta joerak ondo ezagutzen. Ilusioari eutsi behar zaio etsipenetan, beren iraunkortasuna sustatu zailtasunetan, poztasuna konpartitu asmatzeetan, erabaki batzuk hartzen lagundu, laguntzak beraiekin batera bilatu, eta Jainkoari eta besteei eskerrak ematera bultzatu beraiengandik jasotzen duen guztiagatik”¹.

Gure seme-alabek maila planetarioan bizi izango dute elkarrekiko mendetasunaren esperientzia. Eta, hala ere, badirudi ez dakigula “gu” esaten. Banakakoa, pribatua, gailentzen da kolektiboaren, guztion onaren... gainetik. Ez dakigu non kokatu gure itun eta elkartasunak.

Harreman-alderdian hezi behar ditugu gure seme-alabak: norbere autonomia lortzea ez ezik mundu honetan bizimodua korapilatze gaitasuna den burujabetzaren alde hezi.

Nire fede esperientziak ez du nire autonomia eteten, ezta mugatzen ere... Alderantzia, besteekin hartu-emanen jartzen du... Besteentzat izate hori, hartu-emanen izate hori... ikasi, hezi egin behar dugu... Jesusen atzetik jarraitzea bide ona da horretarako.

OTOITZA

Jainko Aita maitea,

(... haurraren izena) egunez egun hazten doa.

Batzuetan, guregandik “aldendu”

egiten dela dirudi,

gure beharrik izango ez balu bezala.

Lagun diezaiogula bere hazkundean,

bere ezaugarri eta aukerak ezagutzen

eta bere mugak onartzen.

Den bezala maite dezagula,

ez guk nahiko genukeen bezala.

Guztiontzat ona zaren Aita on horri

eskatzen dizugu.

Amen.

¹ Katekesirako Iruña, Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Ordezkaritza eta Idazkaritzak. *Familian. 0 eta 6 urtekoen erlijio esnatzea. Handia naiz* lib. 46-47 or.

Seme-alabei buruz. Khalil Gibranen olerkia

Zure seme-alabak ez dira zureak,

bere buruaren gose den

bizitzaren seme eta alaba dira.

Ez datoz zuregandik, zure bitartez baizik,

eta nahiz eta zurekin izan,

ez zara haien jabe.

Maitasuna eman diezaiekezu,

baina es zure pentsamendurik,

beren pentsamenduak baitituzte.

Beren gorputzak bero ditzakezu,

baina ez beren arimak,

hauek ametsetan ere

bisita ezin ditzakezun

biharko etxean bizi direlako.

Beraien antzeko izateko

ahalegina egin dezakezu,

baina ez saiatu

beraiek zure antzeko egiten,

bizitzak ez duelako atzera egiten

eta ez delako iraganean geratzen.

Zu arku zara eta zuregandik

jaurtitzen dira zure seme-alabak,

gezi bizi balira bezala.

Zure arkulari-eskuaren joera

Zoriontasunerako izan dadila.

Berak hegan egiten duen gezia

maite duen bezala

Maite duelako arku egonkorra.